

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

5090

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 7koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia argitaratzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2023ko azaroaren 7ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia onartu du. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua n) letran xedatutakoarekin bat etorritik, eta estatutu horiek bigarren aldiz aldatzen dituen abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak emandako idazkeraren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Horrenbestez, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratu ematea Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2023ko azaroaren 7ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onetsia (ebazpen honen eranskinean dago jasota erabakia).

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntza-deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Aditzera ematea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 7a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPLEGU-ZENTRO
BEREZIETAN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN LANPOSTUAK
MANTENTZEKO 2024KO EKITALDIKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen urriaren 17ko 152/2023 Dekretua argitaratu zen EHAAn, 2023ko urriaren 27an. Dekretu hori indarraldi mugagabea duen xedapen orokor bat da, eta enplegu-zentro berezietan kontratatu dituzten eta desgaitasuna duten pertsonen soldata-kostuak finantzatzeko laguntzak arautzen ditu II. kapituluko 3. atalaren 1. azpiatalean, haien lanpostuak mantentzen laguntzeko helburuarekin.

Urriaren 17ko 152/2023 Dekretuko 39. artikulua espresuki ezartzen du desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabaki baten bidez egingo dela eta hartan zehaztuko direla finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa eta eskabideak aurkezteko epea.

Ezarritakoari jarraituz, laguntza hauek urtero banatuko dira, eta enplegu-zentro berezi bakoitzari dagokion dirulaguntza emango zaio desgaitasuna duten pertsona guztien 2024ko ekitaldiko soldata-kostuak finantzatzeko. Dirulaguntzaren zati handiena (% 95) hileror ordainduko da, horrela enplegu-zentro berezien finantza-egonkortasunari mesede egiteko.

Laguntzak eman eta ordaintzeko prozedura honen helburua betetzeko, beharrezkoa da laguntzen deialdia aurrerapen nahikoarekin egitea, laguntzak ematearen ebazpena 2024ko ekitaldiaren hasieran gauzatu dadin, gehiago atzeratu gabe. Hori dela-eta, deialdi hau modu aurreratuan egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentzarako aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren babesean.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia onartu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiak hala proposatuta, 2023ko azaroaren 7ko bilkuran. Hauek dira deialdiaren zehaztapenak:

1. artikulua.– Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen urriaren 17ko 152/2023 Dekretuko II. kapituluko 3. atalaren 1. azpiatalean arautzen diren laguntzak ematea 2024ko ekitaldian, enplegu-zentro berezietan lan egiten duten eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak, alegia.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2023ko azaroaren 30ean amaituko da.

Helbide honetan eskura daitezke prozedurari buruzko informazioa, izapidetzeko jarraibideak, eskaera-orria, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0137614>. Bertara sartzeko, esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 69.402.148,00 eurokoa da. Horietatik 65.932.041,00 euro dagozkie Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2024ko aurrekontu-ekitaldiko ordainketa-kredituari, eta 3.470.107,00 euro 2025eko ekitaldiko konpromiso-kredituari.

2.– Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen ebazpenak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egoki eta nahikoa egoitea Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko aurrekontu orokorretan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduko 5.3 artikuluaaren ondorioetarako.